

Indar Gorriko 61 kide atxilotu dituzte

LA HAINE - EUSKAL HERRIA :: 07/03/2024

Espainiako Poliziak egiten ari den operazio haundi baten barruan atxilotu dituzte gaur goizean.

Indar Gorriko hirurogehitara bat kide atxilotu dituzte gaur goizean Iruñea inguruan eta oraindik Txintxilla kaleko polizia etxean jarraitzen dute gatibu. Indar Gorrik berak eman du polizia operazioaren berri bere sare sozialetan eta Espainiako Poliziak baieztatu ditu atxiloketak. Hala ere, Espainiako Poliziak aurreratu duenez, litekeena da operazioaren amaieran gehiago izatea, oraingoz irekita baitago. Atxiloketek iazko urriaren 29an Betisen eta Osasunaren arteko partidaren aurretik Sevillan (Andaluzia) izandako gertakariekin harremana dute. Gaurko atxiloketak Iruñean, Madrilen eta Sevillan ematen ari dira, eta Espainiako poliziak “Kirolean izandako indarkeriaren aurkako” operazio handi baten barnean daude. Azken denboraldian hainbat kolpe errepresibo jaso ditu Indar Gorrik, izan ere, iazko abenduaren 12an beste bederatzia kide [atxilotu zituzten](#) eta azken astetan hainbat pertsona isundu dituztela salatu du taldeak.

Bestalde ASKE antolakunde antirrepresiboak jakinarazi duenez atxilotuen artean Jarduneko kide bat ere eraman dute atxilotuta, eta atxilotuen askatasuna exijitzeaz gain, mobilizazioei adi egiteko deia egin dute.

<https://eh.lahaine.org/indar-gorriko-hamasei-kide-atxilotu>